

George, hain ona al dago?


2010ean kafe espresoa egiteko 10.000 milioi hondakin kapsula produzitu ziren munduan. Nespressok birziklapen kanpaina jarri du martxan, baina Italiako Rifiuti Zerok badu alternatiba merkeagoa eta ekologikoagoa: kapsula berrerabilgarriak.

URKO APAOLAZA

KAFE KAPSULATXOAK birziklatzeko hitzarmena sinatu dute Garbikerrek –Bizkaiko hondakinen kudeaketaz arduratzen den elkarte publikoak– eta Nestlék. Garbiguneetan eta puntu berde mugikorretan bilduko dituzte kapsulak, ontzi laranja batzuetan, eta ondoren Nestlék Bartzelonan duen tratamendu planta batera eramango dituzte. Aluminioarekin lorontziak egiten ei dituzte eta kafe-hondarrekin konposta. Horrela, multinazional suitzarrak produkzio zikloa ixten du. Baina dena ez da hain distiratsua negozio horretan.

Monodosi kafe espresa 1970eko asmakizuna bada ere, 2000. urtetik aurrera hasi zen Nestléren Nespresso marka kapsula horiek esplotatzen. Horretarako, urte haietako beroaldi eta aberastasun zaluarekin bat zetorren formula bilatu zuen. Irribarre seduzitzailea, ahots sakona eta pose elegantea. Esklusibitatea, luxua eta sofistikazioa. Kafe bat paradisuaren truke. Zaila behar du George Clooney-ren klubekoa ez sentitzea Nespressok irudikatzen duen mundu pijora erorita. Eta emaitzak hor daude: kapsulen modak kafearen sektorea irauli du eta marka guztiak lehian sartu dira.

Kafe espresa egiteko, zapal dutako kafeari ura iragazi behar zaio 15 bar inguruko presioz eta denbora laburrez. Kafea kapsula hermetikoan jarrita, dosi zehatzean ur presio altua sartzea lortzen da, ezer zikindu gabe gainera. Horratx miraria! Baina ordainetan, kafe-hondarrak “preso” daramatzan ontzitzen bat geratzen zaigu. Hondakin bat. Zer ekarri du horrek? 2010ean, esaterako, 10.000 milioi hondakin-kapsula sortu ziren; bata bestearen



Nespressok marketin operazio borobila egin du Clooney aktorearekin. Kapsula bakoitza 0'33 zentimotan kobratzen du. Garestiagoa litzateke kostu ekologikoa kontuan hartuz gero.

ondoan jarrita munduari aluminiozko bost uztai egingo genioke nahi izanez gero.

“Nespressoren kapsulak %100 birziklagarriak dira” kontraeraso du ingurumenerekin hain curriculum sentibera izan duen multinazionalak (uraren monopolioa, plantazio handietako esplotazioa, hauts-esne kutsakorrak...), eta *Ecolaboration* izeneko kanpaina efektista jarri du martxan hainbat herrialdetan. Kapsulak bere horretan bildu eta berak birziklatzen ditu. Suitzian, ama-sorterrian, aspaldi hasi ziren, eta kapsulen %70 jasotzen dute; helburua da 2013rako mundu osoan saltzen diren Nespresso kapsulen %75 birziklatzeko eskuratzeara. Kanpaina horri lotuta dago Bizkaian Garbikerrekin

egindako hitzarmena.

Bada dioenik, Nespressoren *bonboiak* birziklatzeko hain errazak ez direla. Aluminioa estaltzen duen kapa fin hori –kapsula kolorez apaintzen duena– bereizteko lanak dituzte, eta berdin pasatzen da plastikozko estalkiarekin, energia asko kontsumitu behar baita banandu eta birziklatzeko. Bestalde, zein da kapsulak produzitzeko kostu ekologikoa eta aluminioa erauztean sortzen den kutsadura? Zenbait kasutan, gainera, ez dira birziklagarriak. Nespressoren lehiakide den Lavazza marka italiarrak adibidez, polipropileno egindakoak erabili ohi ditu. Donostian Zero Waste Europek egindako biltzarrean Rosanno Ercolini adituak jakitera eman zuenez, Italiako Capannoriko hondakinen ikerketa zentroan polipropilenoak kapsula horien afera ikertu dute –munduko kapsulen %10 Italian kontsumitzen da–. Capannoriko Rifiuti Zero



Ezker-eskuin: Bizkaiko Foru Aldundiko eta Nestlé España-ko ordezkariak Derioko garbigunean; Centocaffé enpresak merkaturatzen dituen ekokapsula berrerabilgarriak; eta Italiako Capannoriko Rifiuti Zero ikerketa zentroak egindako infograma, hor azaltzen dira zein diren ingurumena gehien eta gutxien kaltetzen duten kafea egiteko moduak.

zentroaren webgunean ikus daitezke emaitzak, hemen batzuk:

- Kapsula horien diseinuan akatsa dago, birziklitzeko desegokia da.
- 250 kapsula egiteko 2 litro petrolio, 4 litro ur eta 22 kwh energia behar da.
- Horren ordean, konpainia handiei proposatu diete ekokapsula (*ecopad*) berrerabilgarriak sustatzea, 250 aldiz erabiltzeko modukoak. Existitzen dira, Centocaffé enpresak egiten ditu, Lavazza eta Nespressoen makinekin bateragarriak gainera. Italian ikusmina sortu dute eta telebistako saio nagusietara iritsi da berria. *Biocap* edo kapsula biodegradableak ere badaude.

Ez da inon Garbikerren eta Nestléren arteko hitzarmenaren letra txirikirik publikatu –antza, Tradebe enpresaren esku geratuko da gestioa–, baina haien onkerian sinesten badugu, Garbikerreko arduradunei eskatu behar genieke denborarik galdu gabe Capannoriko Komunarekin harremanetan jar daitezela, kapsula berrerabilgarriak sustatze-

Zentzurik ba al du pre-Lehman Brothers klub bateko sozio garelako amesten jarraitzeak? Edo zentzua galdu dugu?

ko plan bat diseinatu dezatela, eta ezer baino lehen kafe berdearen eta bidezkoaren kontsumoa bultzatzeko estrategia has dezatela.


Capannoriko Rifiuti Zerokoek prestaturiko power pointean oso irudi argigarria azaltzen da (goian ikusgai). Ingurumena gutxien eta gehien kaltetzen duten kafea egiteko moduen eskema antzeko bat da.

Ganbarako errota zahar maitea atera eta kafea betiko *italianan* egiteko ordua dela dirudi, amona Mañolik egiten zuen bezain goxoa, portzierto. Atzekoz aurrera ari baikara. Zer zentzu dauka 30 gramo kafegatik 50 gramo hondakin sortzea? Zer zentzu, Nespresso aitortu duenez, kafe kikara bakoitzeko 82 gramo CO2 sortzea? Clonneyren irribarrearengatik Nespresso 0'33 zentimo oparitzeak ba al du zentzurik? Zentzurik al du pre-Lehman Brothers klub bateko sozio garelako amesten jarraitzeak? Edo zentzua galdu dugu?

Galdera beste modu batera eginda: merezi du zarrastelkeria hori guztia pagatzea kafe goxo batengatik? Hain ona al dago, George? ■



ATXASPI HOTELA



...ametsetan bezala

Bittiria, 24 · Lesaka (Nafarroa) · T.: 948 637 536 · hotela@atxaspi.com · www.atxaspi.com

